

OPERA TAILERRA

Jarduera

Operaren gakoak, hizkuntza, ezaugarriak eta edukiak ezagutzeko ikastaroa.

Deskribapena

Opera, ikusleen aurreko agertoki batean eta musika instrumentalaz lagundurik antzezten den drama abestu bat da. Antzerkiaren berezko elementuez antzezten da drama hori, hala nola eszenografia, jantziak edota aktuazioa bera. Hala ere, operaren letra abestu egiten da. Ikastaro honetan opera zer den, nortzuk osatzen duten eta harez nola goza daitekeen ikasiko dugu.

Helburuak

- Operaren munduan sakontzeko zeregina erraztu.
- Opera-lan garrantzitsuenak modu atseginean aztertu.
- Mota eta estilo ezberdinak ezagutu eta bakoitza bere garaian kokatzen ikasi.
- Herritarrek parte hartzeko guneak sortzea.
- Herritarren kultura-kezkak asetzea

Nori zuzendua

Helduak

Ikasleak eraman beharreko materiala

Apunteak hartzeko materiala.